

Erreferentzia kodea: ES/NA/AACF/2/011

Izenburua: ABELTZAINZAREN GARAPENERAKO AGENTZIA

Datak: 1977-1985

Deskribapen maila: Funtsa

Bolumena eta euskarria: 135 instalazio unitate

Sortzailea: ABELTZAINZAREN GARAPENERAKO AGENTZIA

Erakundearen historia:

Abeltzaintza Garatzeko Agentzia uztailaren 11ko 14/1969 Lege Dekretuaren bidez sortu zen, Nekazaritza Ministerioaren erakunde autonomo gisa. Haren helburua zen abeltzainei emandako kredituen laguntza teknikoko, onarpeneko eta ikuskaritzako zerbitzuak bermatzea —Espainiako Gobernuaren eta Berreraikuntza eta Sustapeneko Nazioarteko Bankuaren arteko kreditu hitzarmenean ezarritako Abeltzaintza Garatzeko Proiektuaren barruan—.

Geroago, maiatzaren 22ko 6/1975 Lege Dekretuaren bidez, Espainian abeltzaintza garatzeko bigarren kreditu-hitzarmena sinatzea baimendu zen, eta Agentziari esleitutako eginkizunak zabaldu eta zehaztu ziren. Handik gutxira, Agentziaren egitura organikoa onartu zen (otsailaren 26ko 550/1976 Dekretua). Egitura hori 1976ko maiatzaren 20ko Aginduaren bidez garatu zen, eta berehala aldatu behar izan zen (otsailaren 13ko 419/1979 Errege Dekretua), desagertutako erakunde sindikaleko kideek kargua uzteak eragindako aldaketen ondorioz. 1979ko irailaren 28ko Aginduaren bidez, Ebro aldeko bulegoa ezarri zen (Nafarroako probintzia barne hartzen zuena). Haren eginkizunak ziren abeltzaintza estentsiboko ekoizleei laguntzak ematea, banku laguntzaileetatik jasotako diruarekin. Abenduaren 18ko 2654/1985 Errege Dekretuaren bidez, Nafarroara eskualdatu ziren Estatuko Administrazioak nekazaritza, abeltzaintza eta mendien arloan ematen zituen zerbitzuak.

Funtsaren antolamendua:

011.01 GOBERNUA

011.01.01 Saioen deialdia

011.02 ADMINISTRAZIOA

011.02.01 Memoriak

011.02.02 Korrespondentzia

011.02.03 Langileen espedienteak

011.02.04 Kontabilitateko espedienteak

011.03 ONDAREA

011.03.01 Ondasunen kudeaketa

011.04 ZERBITZUAK

011.04.01 Abeltzaintzako hobekuntza espedienteak eta proiektuak

011.04.02 Egiturako hobetzeko dirulaguntzak

011.04.03 Diruz lagundutako maileguak

Sarrera baldintzak:

Sarbide mugatua. Ebaluazio Batzordeak dokumentazioa murrizteko epea ezartzen ez duen bitartean, dokumentuak eskuratzeko, Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legearen 20. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.